

SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK SL

info@sastrakokirola.eus

UDAL KIROLDEGIKO KIROL-JARDUERAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDA OSATZEKO BALDINTZAK, SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK SL ENPRESAN SORTZEN DIREN BEHARRAK BETETZEKO.

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda eratzea, udal kiroldegiko kirol-jarduerako teknikariaren lanpostua betetzeko, Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresan sortzen diren beharrak betetzeko. Garatu beharreko funtzioak kirol-jardueren monitorearenak dira.

1.2. Hautaketa hautapoben, curriculumen balorazioaren eta elkarrizketa pertsonalaren bidez egingo da, baldintza hauetan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, honako printzipio hauek errespetatuko dira: berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna; deialdiaren eta haren oinarrien publikitatea; gardentasuna; hautaketa-organoko kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa-organoaren jardunean independentzia eta diskrezionalitate tekniko; hautaketa-prozesuaren edukiaren eta garatu beharreko eginkizunen edo zereginen arteko egokitasuna; arintasuna hautaketa-prozesuan, objektibotasunari kalterik egin gabe.

1.3. Lan-eskaintza Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Doneztebeko Agentziaren bidez egingo da.

1.4. Euskararen ezagutzari dagokionez, hautagaiek gutxienez C1 maila egiaztatu beharko dute ahozko eta idatzizko gaitasunetan. Horretarako, parte hartzeko eskabidearekin batera, eskatutako ezagutza dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Nolanahi ere, titulazio hori izan edo ez, ezagutza horrela egiaztatu beharko da: proba teorikoaren eduki osoa euskara hutsean idatzita egongo da; elkarrizketa-fasean, euskara hutsean egingo baita.

1.5. Gaingitu duten izangaiei Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresan sortzen diren premien arabera deitu ahal izango zaie: baja medikoen ordezkapenak, oporrak, baimenak, eszedentziak edo antzekoak. Egin beharreko kontratuak aldi baterako kontratuak izango dira (langilea ordezkatzeko).

1.6. Lan-ordutegia enpresak ezarritakoa izango da, betiere zerbitzuaren beharren arabera egokituta, eta enpresak aldatu ahal izango du.

1.7. Lanpostuak Nafarroako beste erakunde batzuen jabetzako kirol-zerbitzuak eta - ekipamenduak kudeatzen dituzten enpresa eta erakundeen sektoreko Hitzarmen Kolektiboko 3. taldeko ordainsariak izango ditu.

2. oinarria. Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako estatuetak herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bereizita ez badaude. Era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Hauetako titulazio bat: kirol-teknikaria edo baliokidea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina edukitzea.

Lehen adierazitako titulazioen baliokideak diren ikasketak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen legezko edo arauzko xedapena aipatu beharko dute, edo, bestela, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Gutxienez C1 mailaren baliokidea den euskararen ezagutza izatea ahozko zein idatzizko gaitasunetan.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak aurkeztu ahal izango dira Berako kiroldegian (Julio Caro Baroja Pasealekua, 2), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, larunbata eta igandean 10:00etatik 13:00etara edo eskaera eta dokumentazioa honako helbide honetara bidaliz: info@sastrakokirola.eus.

3.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredia beteko da, eta honetan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.3. Interesdunek **2023ko apirilaren 27ra** arte aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak. Epea 13:00etan amaituko da.

3.4. Parte hartzeko eskaerarekin batera, honako hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute izangaiek: Nortasun Agiri Nazionala, 2 C) oinarrian eskatzen den titulazioa, euskara-titulazioa (hala badagokio), edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan daudela egiaztatzen duten agiriak, eta curriculum vitae dokumentatua.

3.5. Minusbaliotasuna duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, minusbaliotasun-egoeraren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana,

SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK SL

info@sastrakokirola.eus

eta, horrekin batera, desgaitasun hori lanpostuan normaltasunez jarduteko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikoa ez dela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria.

4. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

4.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Lehendakaria: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea eta Sastrako Kirol Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

- Mahaikidea: María Teresa Michelena Tena, Sastrako Kirol Zerbitzuak SLko jarduera teknikaria.

- Mahaikidea: Leire Portu Telletxea, Sastrako Kirol Zerbitzuak SLko koordinatzailea

- Mahaikidea: María Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontu-hartzailea.

- Mahaikidea: Miguel José Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.

4.2. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Idazkaria izendatuko da kideen artean. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

5. oinarria. Proba teorikoa.

Proba hori Maiatzaren 2an egingo da (interesatuei tokiaren eta orduaren berri emango zaie), eta galdera labur eta/edo test motako batzuei erantzun beharko zaie, idatzizko ariketan. Galdera horiek honako gai hauei buruzkoak izango dira, eta indarreko legediaren arabera eskatuko dira:

- Kirol-entrenamendua: kontzeptua, helburuak eta ezaugarriak. Kirol-entrenamenduaren plangintza: prozesuaren faseak, programazio-motak (epe laburra, ertaina eta luzea), ereduak eta osagaiak.

- Indarra: kontzeptua, motak eta zein faktoreren mende dagoen. Garapen-metodoak eta -bitartekoak. Adin-talde bakoitzean indarra garatzeko zereginak diseinatzeko irizpideak eta tratamendua.

- Erresistentzia: kontzeptua, motak eta zer faktoreren mende dagoen. Garapen-metodoak eta -bitartekoak. Adin-taldeetan garatzeko zereginak diseinatzeko irizpideak eta tratamendua. Entrenamenduan eragina duten ingurune faktoreak (altitudea, estres termikoa, ordutegi-aldaketa).

- Entrenamendu-karga: definizioa eta kargaren osagaiak (bolumena, intentsitatea, iraupena). Kargen banaketa kirol-entrenamenduaren plangintzaren denbora-egituretan. Berreskuratzea (jarraibideak, bitartekoak eta teknikak).

- Hirugarren adinekoen gorputz- eta kirol-jarduera: garapen fisikoa (jarduera fisikoari aplikatutako oinarri biologikoak, garapen kognitiboa, garapen afektibo-soziala eta garapen motorra (gaitasun motorren alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak). Jarduera fisikoko programak egiteko, gauzatzeko eta kontrolatzeko jarraibideak.

- Gorputz- eta kirol-jardueraren bizi-arriskuak eta premiazko jarduerak: bizi-euskarriko, laguntza psikologikoko eta ingurunea kontrolatzeko oinarritzko teknikak.

- Prebentzioa eta segurtasuna kirol-instalazioetan.

Epaimahaiak zehaztuko du proba hori egiteko gehieneko denbora, eta **30 puntu** emango zaizkio gehienez. Galdera guztien hasierako balorazioa berdina izango da. Gutxienez 15 puntu lortzen ez dituztenak baztertuko dira. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

Azterketarako deialdia deialdi bakarraren bidez egingo da, eta pertsona bakoitzak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat eraman beharko du berekin. Agertzen ez diren izangaia opositioetik kanpo geratuko dira.

Hautaprobak egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenendako bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

Ariketa plika itxien sistema erabiliz egingen da eta haien irekiera publikoa izango da. Ekintza horren ondoren, izangaien zerrenda, bakoitzak lortutako kalifikazioarekin, udal kiroldegiko iragarki oholean iragarriko da.

6. oinarria. Curriculumak baloratzea.

6.1. Oinarrietan jasotako zehaztapenen arabera merezimenduak dituztela uste duten deialdi honetako hautagai guztiek agiri bidez egiaztatu beharko dute parte hartzeko eskabideari erantsitako curriculum vitae-arekin. Jatorrizko agiriaren edo behar bezala konpulsatutako kopiaren bidez egiaztatutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan.

6.2. Epaimahaiak honako baremo honen arabera baloratuko ditu izangaiek egiaztatutako merezimenduak, eta horien puntuazio osoak ezingo du inoiz **20 puntu** baino gehiago izan. Hau da:

6.2.1. Esperientzia:

a) Enpresa pribatuan lan-kontratuarekin kirol-jarduerako teknikari lanpostuan izandako esperientzia: 0,20 puntu hilabeteko. Gehienez 12 puntu.

b) Edozein administrazio publikotan lan-kontratuarekin kirol-jarduerako teknikari lanpostuan izandako esperientzia: 0,10 puntu hilabeteko. Gehienez 8 puntu.

c) Edozein administrazio publikotan kirol-jarduerako teknikari autonomo gisa izandako esperientzia: 0,10 puntu hilabeteko. Gehienez 8 puntu.

Esperientzia baloratzeko irizpideak aplikatzeko, arau hauek hartuko dira kontuan:

- Baloratu beharreko hilabete-kopurua osoa ez bada, dagokion proportzionaltasuna aurkituko da.

- Lana egin bada osoa baino lanaldi laburragoetan, hainbanaketa egingen da dagokion heinean.

- Ez dira bi aldiz ebaluatuko baremoko talde berean sartutako zerbitzuak, baldin eta aldi berdinetan gauzatu badira.

- Balorazioa egiteko, deialdia argitaratzen den egunera arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

6.2.2. Hizkuntzak (gehienez 5 puntu):

d) Euskara jakitea: C2 titulua, 4 puntu.

e) Beste hizkuntza batzuk jakitea: A1 titulua, 0,50 puntu; A2 titulua, puntu 1; B1 titulua, 1,50 puntu; B2 titulua, 2 puntu; C1 titulua, 2,50 puntu; C2 titulua, 3 puntu.

SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK SL

info@sastrakokirola.eus

6.2.3. Formakuntza (gehienez 6 puntu):

f) Lanpostua lortzeko eskatzen dena baino kirol arloko titulu akademiko handiagoa izatea (goi-mailako kirol-teknikaria, kiroleko goi-mailako gradua, etab.): 2 puntu.

g) Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten ikastaroak:

- Iraupena 20 orduetik gorakoa izan bada: puntu 1.

- Iraupena 20 orduetik beherakoa izan bada: 0,50 puntu.

7. oinarria. Elkarrizketa pertsonala.

7.1. Proba teorikoa gainditu dutenek elkarrizketa bat egin beharko dute epaimahai kalifikatzailearekin, euskara hutsean.

7.2. Elkarrizketa horretan, honako hauek baloratuko dira: jarrera, lanpostu hutsaren eginkizunen eta aurretiko esperientziaren arteko antzekotasuna, lanean hasteko prestasuna eta, agiri bidez egiaztatu ez bada, euskara-maila.

7.3. Gehienez ere 6 puntu emango dira.

8. oinarria. Gainditu dutenen zerrenda.

8.1. Izangaien kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda argitaratuko du udal kiroldegiko iragarki oholean, lortutako puntuazioaren arabera.

8.2. Gainditutako izangaien artean puntuazioan berdinketa gertatuz gero, proba osoan haztapan handiena duen puntuazioaren arabera ebatziko da, eta, berdinketak jarraitzen badu, jendaurreko zozketa bidez ebatziko da.

8.3. Ondoren, epaimahai kalifikatzaileak enpresaren lehendakariari bidaliko dio hautaketa-prozesuko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda, enpresan sortzen diren beharrei erantzuteko deia egin dezan.

8.4. Hautaketa-prozesu honen babesean eratutako zerrendak bost urtez egongo dira indarrean, onartzen direnetik zenbatzen hasita. Zerrendak indarrean dauden bitartean lanpostu bererako beste zerrenda berri batzuk eratzen badira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidezko hautaprobaren deialdiaren bidez, zerrenda berrienetako izangaiek lehentasuna izanen dute zerrenda zaharrenetakoan aldean.

9. oinarria. Zerrendaren kudeaketa. Deiak.

9.1. Deiak egiteko arau orokorrak.

9.1.1. Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen jakinarazi beharko dute. Horrez gainera, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektronikoko bat eman ditzakete. Informazio horrek etengabe eguneratua egon beharko du.

9.1.2. Izangaiei deitzeko puntuazio-ordenaren arabera egingo da.

9.1.3. Oro har, telefonoz kontratu bat eskaintzeko, gutxienez hiru saiakera egingen dira izangai bakoitzarekin, hark jakinarazitako bideak erabiliz, eta deiak egun bateko epean banatuz. Dei bakoitzaren oharra jasoko da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

9.1.4. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratatzeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta 9.2 puntuan xedatutakoa aplikatuko zaio.

9.1.5. Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte. Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

9.1.6. Eskaintzari baietz esan nahi dion izangaia lanean berehala hastea onartu behar du.

9.1.7. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko.

9.2. Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

9.2.1. Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geratuko da, salbu eta ondoko egoera batean dagoela frogatzen badu:

a) Indarrean dagoen kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

b) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta behar bezala frogatu arte uko egitea justifikatu zuen egoera bukatu dela.

c) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

d) Bigarren gradura arteko odol- edo ezkontza-ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena, zaindu behar izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

e) Izangaia ezkondu berria edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, parekatutako egoeran sartu berria izatea, eskainitako kontratuaren hasiera eguna bikotea eratu ondoko edo eratu aurreko hamabost egun naturaletan bada.

f) Desgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.

9.2.2. Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, izangaiek zerbitzu emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaia ez

SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK SL

info@sastrakokirola.eus

dira deitzeko moduan izanen, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik.

9.2.3. Puntu honetako 1. idatz-zatian adierazitako egoeretako batean dauden izangaiek aste bateko epea izanen dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

9.3. Zerrendetatik baztertzea. Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiek:

- a) Eskainitako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
- b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.
- c) Probaldia ez gainditzea.
- d) Sinatutako kontratuari uko egitea.
- e) Sei hileko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzekeo deiak behin eta berriz eginda ere.
- f) Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresan edo Berako Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartzea lanpostu berean edo maila altuagoko beste batean jarduteko.
- g) Lanpostua bertan behera uztea.
- h) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.

10. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren helburua enplegu-deialdia kudeatzea da.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta ezeztatzeko, info@sastrakokirola.eus helbidera idatziz.

Era berean, interesdunek erreklamazio bat aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, Jorge Juan kaleko 6. zenbakiko 28001 zenbakira (Madril) joz edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).

Bera, 2023ko apirilaren 18a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
Aitor Elexpuru Egaña.

I ERANSKINA

ESKABIDE EREDUA

Izena: ,
adinez nagusia, NAN zenbakia:, jaioteguna:
....., jaioterria: (.....), nazionalitatea:
....., egungo helbidea: (.....), kalea:
..... zenbakia:, posta kodea:,
telefonoa:, helbide elektronikoa:
....., zure aurrean agertu eta

AZALTZEN DUT:

Udal kiroldegiko kirol-jarduerako teknikariaren lanpostua betetzeko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda osatzeko hautaprotetan onartua izatea eskatzen dudala.

Ez dudala lanpostuan aritzeko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.

Elbarritasuna dudala eta, beraz, aipatzen dudan egokitzapena eskatzen dudala, azaltzen ditudan arrazoiengatik. (*Beste orri batean zehaztuko dira minusbalioetasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak*). (*Adierazi X batez hala bada*).

Curriculum vitae dokumentatua eransten duela, balioesteko.

Sastrako Kirol Zerbitzuak, SLri baimena ematen diodala telefono mugikorraren zenbakia erabiltzeko deiak egiteko.

HORRENBESTEZ, eskaera hau onartzeko eskatzen dut.

(Data eta sinadura)